



ADOS AHOLKU BATZORDEAREN INFORMAZIO-ZIRKULARRA

4. zba.

2022ko URTARRILA

ADOS Eusko Jaurlaritzak sortutako Aholku Batzorde bat da, euskal erakundeek eta Euskadiko Komunitate islamikoen arteko lankidetzak sustatzeko sortua. 2018ko apirilaren 14an eratu zen. Ordutik, urtean gutxienez bost aldiz bildu da. Batzorde horretan euskal erakunde guztiek eta komunitate islamikoetako kideek parte hartzen dute. Bileretan bizikidetzak sustatzeko lan egiten da, eta helburua da Euskadiko komunitate islamikoen arazoei irtenbideak bilatzea.

HAMID BEN DAOU EUSKAL-MAROKOARRA ESPAINIAKO MARATOIKO ERREKORRA

Hamid Ben Daoudek Espainiako Maratoi errekorra berdindu berri du, eta kronometroa 2 ordu, 6 minutu eta 35 segundotan gelditu du. Plusmarka Valentziako nazioarteko maratoian 2021eko abenduaren 5ean lortu zuen, eta Ayad Lamdassen 2020az geroztik duen Espainiako errekorra berdindu du.

Hamid Ben Daoud Er-Rachidían jaio zen, 120.000 pertsona baino gutxiago bizi diren Marokoko hegoaldeko hiri batean, baina aspalditik Zamudion (Bizkaia) bizi da.

Hamid Ben Daoud 2010ean iritsi zen Euskadira 14 urterekin familia-erreferentziarik gabeko adingabe atzerritar gisa. Amorebieta-Etxanoko Lehen Harrerako Zentroan sartu zen, Bizkaiko Foru Aldundiaren tutoretzapean.

Zentro horretatik (2005etik 6.300 adingabe baino gehiago igaro dira, gehienak mutilak) prestakuntza- eta gizarte- eta hezkuntza-prozesu bati ekin zitzaion, eta Loiuko Zabaloetxe adingabeen zentrorera eraman zuten. Baliabide horrek egonaldi luzeagoa du, eta gizarte- eta hezkuntza-arloko laguntza, lanaren aurreko orientazioa, dokumentazio-prozesua, aisialdiko jarduerak, kirolekoak, kulturalak eta abar lantzen ditu. Izan ere, Hamidek Lanbide Heziketako erdi-mailako gradu bat ikasi zuen.

Eta Zabaletxen ere aurkitu zuen Hamidek atletismoa. Han, Hassan Redad zentroko atletismo-arduradunak Hamidek futboleak zuten hasierako interesa

lasterketetara leheneratu zuen (ohikoa da gazteek kirol hori nahiago izatea beste batzuen gainetik), eta bertan, distantzia laburretan korrika hasi bazen ere, laster nabarmendu zen distantzia luzean.

Zabaloetxeren helburua ez da mutilak elitera iristea, balioak transmititzeko eta lantzeko eta integrazioa eta bizikidetzak indartzeko bitarteko gisa erabiltzea baizik; hala ere, azken urteotan, haien lanak presentzia nabarmena lortu du Espainiako atletismoan. Adibidez, Abdelaziz Merzougui ere zentroan trebatu zen. Orain 30 urte ditu, eta Europako txapelduna izan zen kros-sean, junior bezala 2010ean, eta 3.000 metro ozto-poetan, 23 urtez azpiko bezala 2013an.

Hamid Ben Daoud Basque Team Fundazioaren beka jaso duen kirolaria da. Euskadi ere ordezkatzeko duen atleta bat da. Hamid Ben Daoud errekonstruzio- eta erresilientzia-historia bat da. Zorionak, Hamid! Enhorabuena, Hamid! **مباروك يا حميد!**

ESKOLA-MENU BERRIAK AURKEZTU ETA TXERRIAREN ERATORRIRIK GABEKO AUKERA ESKAINIKO DA

Eusko Jaurlaritzak, 2021eko azaroan, ikastetxe publikoetarako eskola-menuak kontratatatzeko eredu berria aurkeztu du. Eredu horrek komunitate islamikoen ohiko aldarrikapenari heltzen dio, hau da, txerriaren eratorririk gabeko nutrizio-alternatiba bati.

Hala, euskal ikastetxe publikoetako jantokietarako kontratu berriak bermatzen du beti egongo dela txerri-eratorririk gabeko alternatiba bat, baita bi formula

begetariano ere (bat obolaktobegetariana arrainarekin eta bestea arrainik gabe). Horiek guztiek “ingurumen-jasangarritasun irizpideak” bete eta ohitura “osasungarriak” sustatu nahi dituzte.

Kontratu berri hori, hasiera batean, hiru ikasturtetarako izango da –30 hilabete uztaila eta abuztua kontuan hartu gabe–, eta Euskadiko 336 ikastetxe publikotan emango da (60 Araban, 166 Bizkaian eta 110 Gipuzkoan). Ikastetxe horietan, 50.000 otordu inguru zerbitzatzen dira eskola bakoitzean.

Kostua 206 milioi eurokoa da hiru urteetarako eta, Jokin Bildarraitz Hezkuntza Sailburuaren hitzetan, “aukerak eskaintzen baziren ere, aukera hain zabala eskainiko den lehen aldia izango da”.

ADOS BATZORDEA EUSKADIKO GARAPEN JASANGARRIRAKO 2030 AGENDAREN PARTE IZANGO DA

Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda helburu orokorren multzo bat da, pobrezia mota guztiei amaiera emateko, desberdintasuna murrizteko eta klima-aldaketaren aurka borrokatzeko.

Helburuen Agenda hori Eusko Jaurlaritzak hartu du bere gain, eta Euskadirentzako berariazko estrategia bat garatu du. Horren bidez, Nazio Batuen helburuak betetzeko 17 helburutan neurri zehatzak jartzen ari dira abian.

Estrategia horren esparruan, Euskadiko komunitate islamikoekin lankidetzan aritzeko ADOS Aholku Batzordeak 2030 Agendaren helburuekin bat egingo du. Gisa honetako helmugak betearazten lagunduko du: “Giza eskubideen eta pluralismoaren errespetuan oinarritutako bakearen eta bizikidetzaren kultura sustatzea”, “Immigrazioaren aldeko eta arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako Itun Soziala bultzatzea” eta “Bizikidetzaren eta giza eskubideen arloko hezkuntza sustatzea (indarkeriarik eza, aniztasuna eta elkartasuna)”.

ADOS BATZORDEAK LANEAN JARRAITZEN DU GIPIZKOAKO UDALEKIN, ERRITU MUSULMANEKO EHORZKETEN AUKERA BERMATZEKO

Aurreko zirkularretan jakinarazi den bezala, ADOS Batzordea Gipuzkoako Udalekin harremanetan dago, erritu musulmaneko ehorzketetarako espazio egokiak izateko aukera aztertzeko.

2021eko azaroan eta abenduan, eta 2022ko urtarilean, bilerak egiten ari dira sei Udalekin. Gainera, 2022aren hasierarako guztien arteko bilera berri bat egitea aurreikusi da, aukerak eta egindako aurrerapeak aztertzeko.



ADOS Aholku Batzordea
Comisión Asesora ADOS
اللجنة الاستشارية أَدوس

945 018 036
688 670 199
adosbatzordea@euskadi.eus
Navarra, 2 / 01007 Vitoria-Gasteiz

Euskadi, auzolana, bien común

